

Oposiciones docentes 2025/ 2025 irakasle oposizioak		
Cuerpo o puesto/ Kidegoa edo lanpostua:	Especialidad/Espezialitatea:	Idioma/ Hizkuntza:
Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa	Gorputz Hezkuntza	Euskara
PRUEBA PRÁCTICA-PROBA PRAKTIKOA		

Ikastetxea hiri ingurunean kokatua dago eta haren alboan belardia duen parke zabala aurkitzen da.

Ikastaldea 1. batxilergoko 30 ikaslez osatua dago. Talde berri honetan, DBH ikasketak ikastetxe berean egin dituzten ikasleak daude; baita inguruko herri eta auzoetatik etorritako ikasle berriak ere.

Ikastaldean, genero identitatea dela eta aurreko ikasturtetan jazarpen egoera jarraitua pairatu izan zuen ikasle bat dago.

Horrez gain, ikasle batek belauneko lesioa izan zuen ikasturtea hasi aurretik, eta oraindik ere mugikortasun arazo nabarmenak ditu.

Diseinatu ikasturte hasierarako unitate didaktiko bat, zeinetan helburu nagusia talde kohesioa eta ikasleen arteko harremana hobetzea izango den. Lehenengo saioa eta azken saioa garatu, eta zehaztu hauetan emango diren ikaskuntza egoerak. Saio bakoitzaren iraupena ordubetekoa izango da.

Saioak ikastetxe ondoko parke edo belardian gauzatuko dira, eta ondorengo materiala egongo da eskuragarri:

- Gomaespumazko baloiak.
- Pikak.
- Sokak.
- Uztaiak.